

[MUXIKA](#) » [EKONOMIA](#)

SOS Muxika elkartearen aurka agertu da

Udalen arteko hitzarmena legearekin bat ez datorrela adierazteaz gain, Muxikako industriak kritikatu ditu

AINARA GARCIA

Muxikan eraiki gura duten poligono industrialaren aurka azaldu dira SOS Muxika taldekoak ere. Pasadan astean eskualdeko beste zenbait taldek gaitzetsi zuten hogeit hamar udalek garapen ekonomikoa sustatzeko sinatutako akordioa, eta oraingo honetan SOS Muxikak egin du hitzarmen horren aurkako salaketa.

Elkartearen esanetan, «Muxikan jarriko duten poligono industrialak eragina izango du eskualde osoan, eta nola ez, ustez bereziki babestuta dagoen Urdaibaiko itsasaderrean». Horrez gain, «Jarduera Sozioekonomikoetarako Harmonizazio eta Garapen Plana (PADAS) eta Lurralde-akziorako Plana garatu eta zabaldu ezean, gertatzen hari diren arauz kanpoko ekintzak ez datoz bat», euren arabera. «Politika honen ondorioz, Urdaibaiko perimetroa murrizten ari dira. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren plangintzarekin ez dator bat adierazitakoa».

Era berean, egoera «interes espekulatiboetan oinarritutako erabakietan finkatzen» dela gaineratu du SOS Muxikak eta baita muxikarren iritzia kontuan hartu ez dutela ere. «Une honetan, Muxikan 60 hektarea berkalifikatzeko asmotan dabilta. Herritarrei ingurura zer datorren eta nola datorren azaldu barik dabilta erabaki negargarri horiek aurrera eroaten. Muxikako alkatetzak ez digu galdetu Gernikan gura ez duten kutsadura Muxikara ekarterik gura dugun».

Inama eta Ebaki

Udalen arteko hitzarmena kritikatzearaz gain, Muxikan jada dauden zenbait industriaren aurkako jarrera ere adierazi du elkarteak. Besteak beste, FINSA-Inama S.A. eta EBAKI XXI enpresek, lege barruko arauak errespetatzen ez dituztela salatzen dute. «Landa lur moduan sailkatuta dauden 18 hektareatan poligono berria eta Inamaren zabalkuntza eraikiko dute. Bestalde, EBAKI XXI deituriko enpresak bost urte besterik ez daramatza funtzionamenduan, eta lurzorua kutsatzeaz gain, handitu guran dabilta».

Eskaera

Egindako aldarrikapen guzti horiekin, Muxikan urbanizatzeko dauden proiektu guztiak geldiaraztea eskatzen du SOS Muxikak.

Alde batetik, Finsa-Inama enpresak egin gura duen handitze berrirako beharrezko dituen 12 hektarearen berkalifikatze prozesua bertan behera uztea eskatzen du elkarteak, baita Miango-Agerre-Untxeka inguruan poligono industrial berria egiteko 60 hektarea horien berkalifikazioa gelditzea.

Euren esanetan, «Muxikan berkalifikatzekotan dabilta 18 hektarea akuiferoen gainean dauden landa lurak direla kontuan hartu behar da. Gaur egun dauden industriak, kontrol gabekoak izanik, ingurumena hondatzen eta herritarrengan osasun arazoak eragiten ari dira». Era berean, Finsa-Inama S.A. kontrolpean jartzea eskatzen dute, handitze planak eta proiektu industrial berriak gelditzearekin batera.

INGURUMENA

SOS Muxikaren ustez, Biosfera Erreserbaren plangintzarekin ez dator bat politikoek adierazitakoa

ESKAERA

Muxikan urbanizatzeko dauden proiektu guztiak geldiaraztea eskatzen du elkarteak